



# Aranguren Ibarreko Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak



*2024ko urtarrila*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA



## AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA .....	3
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA .....	4
III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN .....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN.....	6
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	7
VI. ARANGUREN IBARREKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA .....	8
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	9
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	10
GEHIGARRIAK.....	11
1. gehigarria. Aranguren Ibarreko Udala.....	11
2. gehigarria. Arau-esparrua .....	13
3. gehigarria. Betetzearen fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuk .....	14
3.1 Langileak.....	14
3.2 Kontratazio publikoa.....	17
3.3. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	19
3.4 Next Generation funtsak.....	22





## I. Sarrera

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, Aranguren Ibarreko Udalari langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen fiskalizazioa egin du.


Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Aranguren Ibarreko Udaleko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Jarduketa horren emaitzak Aranguren Ibarreko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitzaren biribiltzea, eta ez datu biribilduen batura.





## II. Helburua eta norainokoa

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Aranguren Ibarreko Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, nomen ordainsarien analisisa eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: kontratazioa munta txikiko araubidean eta kontratu egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak.

Era berean, Udalak emandako datuen arabera, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

Fiskalizazioaren norainokoa dagokie txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.





### **III. Iritzia, salbuespenekin**

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du Aranguren Ibarreko Udalaren 2022ko ekitaldiko langileriari, kontratazio administratiiboari eta dirulaguntzei buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan Aranguren Ibarreko Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertuak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.





#### IV. Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten kontratazio publikoaz bezainbatean, gastuen 1,4 milioitan hauteman ditugu okerrak; hau da, 2022ko gastuen ehuneko 23an, jarraian xeheki azaltzen denez:

- Udalak 1,3 milioiko gastua egin zuen 13 kontratistarekin, gure txostenaren 3.2. gehigarrian zehaztutako prestazioei dagozkienak, baina ez ditu legez eskatutako lizitazio-prozedurak egin kontratuen balio zenbatetsia kontuan hartuta. Zenbatekoaren ehuneko 81 energia- eta gas-hornidurei dagokie.

- Bestalde, Udalak 101.951 euro ordaindu zituen gure txostenaren 3.2 gehigarrian zehazturiko bi prestaziorengatik, zeinen kontratua bere indarraldi amaierara iritsita baitzegoen alde zurretik. Ez dago arrazoi justifikaturik horren lizitaziorik berriro egin ez izateko.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du legezketasunari buruzko gure iritzia salbuespenekin adierazteko.





## V. Auditoretzako gai giltzarriak

Auditoretzako gai giltzarriak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko legezkotasun-betetzeari egin diogun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako “Iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean azaldutako alderdiengatik izan ezik, erabaki dugu ez dugula gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk eman behar.





## **VI. Aranguren Ibarreko Udalaren erantzukizuna**

Aranguren Ibarreko Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, Udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpikorik.







## VII. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea udalak 2022ko ekitaldian fiskalizatutako gaietan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta betetzearen fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasuna lortzea esatean ziurtasun maila handia lortzea esan nahi dugu, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti detektatuko duenik ez-betetze aipagarri bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-jardueraren araudi erregulatzailearekin bat etorriz, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze aipagarriak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzeko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko ez-betetzearen kasuan baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrolari buruz ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizaziorako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan diren gaiak.





## VIII. Gomendio garrantzitsuenak

Langileriari, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek gomendatzen du:

- *Adjudikazio-prozedura egokiaren bidez lizitatzea eta adjudikatzea balio zenbatetsia dela-eta munta txikiko kontratazioaren prozeduraren bidez izapidetu ezin diren hornidura- eta zerbitzu-kontratu guztiak.*
- *Kontratazio publikoko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*
- *Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea, hiru hilabetean behin, Udalak munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez egindako adjudikazioak.*
- *Dirulaguntzen plan estrategiko bat onestea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasik proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 24an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador





## GEHIGARRIAK

### 1. gehigarria. Aranguren Ibarreko Udala

#### 1.1 Informazio orokorra

Aranguren Ibarra udalerrri konposatu bat da, Iruñerrian dagoena. 40 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 12.156 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean. Honako kontzeju hauek osatzen dute udalerrria: Aranguren, Labiano, Taxoare eta Zolina; eta Ilundain, Gongo, Lakidain eta Mutiloako populazio entitate bereziak.

Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkatetzak osatzen dute udal antolamendua, beste organo batzuen artean.

Udalak ez dauka ez erakunde autonomorik, ez merkataritza-sozietaterik.

Ibarreko kontzejuen eskumen guztiak Udalari lagata daude. Udal-aurrekontuak ibarrean egindako diru-sarrera eta gastu publiko guztia biltzen du.

Kontu-hartzaitzak 2022ko ekitaldiari buruz egindako txostenaren arabera, Udalaren langileria eta ekonomiari buruzko datu nagusiak honako hauek dira:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2022-12-31n*
Udala	14.992.498	13.276.575	93

\*2022ko Kontu Orokorraren Oroitidazkiaren datuak.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, zeinak honako zerbitzu hauek ematen baititu: uraren ziklo integralarenak, hiri-hondakin solidoen bilketa eta tratamenduarenak eta eskualdeko garraioarena. Haren alde aitortutako gastua 268.851 eurokoa izan da 2022an.





## 1.2 Egindako jarduerak

Udalak emandako informazioaren arabera, udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko	Zeharkako	Mankomunitatea
	kudeaketa Udala	kudeaketa Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	X		
Hilerria	X		
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea			X
Bide-garbiketa	X		
Uraren ziklo integrala			X
Estolderia	X		
Liburutegia-ludoteka		X	
Gizarte zerbitzuak	X		
Kirol instalazioak, jarduerak		X	
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa			X
Hirigintza	X		
Udaltzaingoa	X		
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X	X	
Ikastetxe publikoak mantentzea	X	X	
0-3 urtekoen ikastetxea		X	
Turismo-jardueraren sustapena	X		
Berdintasunaren sustapena	X		
Obrak	X		
Lorategiak	X		
Eraikinen garbiketa	X		
Kontzejuen eskumenak eta zerbitzuak	X		
Kirol instalazioen mantentzea	X		





## 2. gehigarria. Arau-esparrua

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

### *Estatuko araudia*

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriena.

### *Foru araudia eta tokikoa*

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.





### 3. gehigarria. Betetzearen fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuk

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

#### 3.1 Langileak

Langile-gastuak 4,2 milioikoak izan ziren, ekitaldian sortutako gastu guztien % 32. Honako taulan ematen da gastu horren xehakapenaren berri:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Funtzionarioen ordainsariak	450.224
Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	1.712.548
Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	948.441
Bestelako langileak	510
Gizarte-kuotak	1.096.498
Langileen gizarte-gastuak	5.998
<b>Guztira</b>	<b>4.214.219</b>

#### *Plantilla organikoa*

2022ko plantilla organikoaren behin betiko onspena 2022ko otsailaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO) argitaratu zen. 2022ko irailaren 27an plantillaren aldaketa bat argitaratu zen NAO-n, zeinetan lanpostu bat gehitzen baitzen.

2022ko plantillaren arabera (adierazitako aldaketarekin), honako hauek dira lanpostuak:

Sailkapena	2022
Lan-kontratudunak	63
Funtzionarioak	9
Behin-behineko langileak	4
Iraungitzeak	1
<b>Guztira</b>	<b>77</b>

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 82 lan-araubidekoak dira, eta ehuneko 12 funtzionarioen araubidekoak.





Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako lanpostuak	77
Beteta	32
Hutsik	44
Iraungitzea	1
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	57
Bete diren lanpostu hutsak	38
Bete diren lanpostu hutsak (%)	86
Bete gabeko lanpostu hutsak	6
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	14

2022ko abenduaren 31n, plantillako lanpostu guztien ehuneko 57 hutsik zeuden; horietatik, ehuneko 86 aldi baterako zeuden beteta, eta gainerakoak, ehuneko 14, artean bete gabe.

2022ko abenduaren 31n, behin-behinekotasunaren indizea, betetako plaza hutsen eta modu finkoan edo aldi baterako betetako plantillako plaza guztien arteko zatidura gisa neurtuta, ehuneko 54koa zen.

### *Enplegu publikoaren egonkortze prozesuaren azterketa*

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Udala partzialki atxiki zitzaion horri, Osoko Bilkuraren erabaki bidez. Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Udalak 32 lanpostu egonkortzeko lan-eskaintza publikoa (aurrerantzean LEP) onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 24an Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO) argitaratua, legearekin bat etorrira, zeinak 2022ko ekainaren 1a ezartzen baitzuen epemugatzat.

- Aurreko 32 lanpostu horietatik, 28 sartuta daude merezimendu-lehiaketaren hautaketa-sisteman, eta lau, oposizio-lehiaketaren sisteman. Ez da jasota geratu eskaintzan sartutako lanpostu-kopurua zehazteko erabilitako prozedura.

- Lagin batean egiaztatu dugu sartutako lanpostuek bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.

- Lanpostu horiek betetzeko, bi deialdi onetsi ziren: bat merezimendu-lehiaketakoa, eta bestea, oposizio-lehiaketakoa. Biak 2022ko abenduaren 12an argitaratu ziren, legearekin bat etorrira, zeina 2022ko abenduaren 31 ezartzen baitzuen epemugatzat.





- Prozesu horretan bi errekurtsio administratibo jarri ziren merezimendu-lehiaketaren deialdiaren aurka: gora jotzeko errekurtsio bat Nafarroako Administrazio Auzitegian, baietsia izan zena, eta berraztertzeko errekurtsio bat, ezetsia izan zena.

Txosten hau idazteko garaian, merezimendu-lehiaketan onartutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu da. Udalak aurreikusten duenez, merezimendu-lehiaketa 2024ko apirilean amaituko da, eta oposizio-lehiaketa, 2024ko amaieran.

Hautapen-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi beharko dira, data horretarako bete behar baita legez aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak ehuneko 8ra murriztea, egiturazko lanpostuetan.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, gomendatzen dugu langile-riarekin zerikusia duten prozedura guztietan eginiko urratsak behar bezala adierazita uztea.

### *Langileria gastuen egiaztapenak*

2022ko urrian 64 pertsonarentzat 141.136 euroko zenbatekoarekin sortzapena izan zuen nominako bederatzi ordain-kontzepturen lagin bat aztertu dugu. Zenbateko horrek hilabete horretako ordainsarien ehuneko 65 egiten du. Hona horien xehekako azalpena:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	89.486
Lanpostuko osagarria	20.176
Gradua	13.142
Mailako osagarria	6.138
Berariazko osagarria	3.800
Dedikazio eskusiboko osagarria	2.219
Arrisku bereziko osagarria	2.770
Antzinasuna	2.695
Txandakotasun-osagarria	441
<b>Guztira</b>	<b>141.136</b>

Aurreko azterketan egiaztatu dugu ordainsari-kontzeptu horiek bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuetarako aurreikusitakoekin. Dena den, honako akats hauek ikusi ditugu lanpostuen osagarriez bezainbatean: lau pertsonak plantillan ezarritakoa baino osagarri baxuagoa jaso dute, eta horietako batek behar baino gehiago kobratu zuen. Udalak dagoeneko hasi ditu dagozkion erregularizazio-espeditentak.

Aurreko guztia dela-eta, nominaren kontu-hartzea egitea gomendatzen dugu, eta egiaztatzea ordaindutako ordainsariak plantilla organikoan onetsitakoari egokitzen zaizkiola.







### 3.2 Kontratazio publikoa

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 6,1 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 46 egiten dute, xehetasun hauekin bat:

Artikulua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Errentamenduak eta kanonak	19.940
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	595.471
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	5.415.995
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	106.950
<b>Guztira</b>	<b>6.138.356</b>

2022an inbertsioetan egindako gastuak 1,72 milioi izan ziren. Hona hemen haien xehapena artikuluka:

Artikulua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	1.050.757
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	666.680
<b>Guztira</b>	<b>1.717.437</b>

Gure lana munta txikiko araubideko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertzea izan da, bi gastu-kapituluetan. Fiskalizazio-lagina hautatzeko, lehenik, kontratista guztien kopurua eta haien gastua bildu dugu, hala 2. kapitulurako nola 6. kapitulurako. Honako informazio hau lortu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.		Aitortutako betebeharrak (BEZa barne), 2022	
	Lizitazio-prozedura-rekin	Munta txikiko araubide berezia	Lizitazio-prozedura-rekin	Munta txikiko araubide berezia
2. Ondasun eta zerbitzu-etan egindako gastu arruntak	12	607 <sup>1</sup>	2.521.652	3.616.704
6. Inbertsioetako gastuak	7	81	806.677	910.760

Munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez kontratatu diren kontratista guztietatik, honako lagin hau hautatu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.	Aitortutako betebeharrak (BEZa barne), 2022
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	49	2.334.662
6. Inbertsioetako gastuak	14	654.645

<sup>1</sup> Kontratisten ehuneko 75ek 3.750 eurotik (+BEZa) beherako gastua dute.





Hautatutako laginek 2. eta 6. kapituluetakoko gastuen ehuneko 65 eta 72 egiten dute, hurrenez hurren, munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez izapidetuak. Berrikusi ondoren, honako hauek ondorioztatu ditugu:

### *Munta txikiko kontratazioa*

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak:

Egiaztatu dugu munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidez izapidetutako honako prestazio hauek daudela, guztira 1,3 milioiko gastua jo zutenak 2022an, zeinen balio zenbatetsiak gainditzen baititu Kontratuei buruzko Foru Legean araubide horretarako ezarritako mugak, honela:

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kopuruak	Aitortutako betebeharrak garbiak (BEZa barne), 2022
Energiaren eta gasaren hornidura	501	1.071.471
Hirigintza arloko aholkularitza	12	78.148
Aseguruak	7	50.744
Laguntza teknikoa	7	36.550
Gizarte- eta lan-aholkularitza	12	29.993
Igerilekuetarako kloroaren hornidura	11	24.642
Telefonia-zerbitzua	103	19.569
Prebentzio-zerbitzuak. Medikuntza-azterketak	9	7.722
<b>Guztira</b>		<b>1.318.840</b>

Aurreko prestazio horietako bakoitza kontratista bakar batek eman du, energia- eta gas-hornidura izan ezik, sei kontratistak eman baitute.

Halaber, energia- eta gas-hornidurari buruz, Ganbera honek azpimarratu nahi du horren lizitazioaren zailtasuna, merkatu-prezioaren gorabeheren ondoriozkoa. Udalak ez zuen hornidura hori araudian ezarritakoaren arabera lizitatu; dena den, positiboki baloratu behar da prezioak eta kontratazioak konparatu zituela enpresa hornitzaile desberdinen artean.

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak:

Kasu honetan, ikusi dugu aztertutako gastua egokiro izapidetua izan zela, eta ez zuela lizitazio-prozedura baten beharrik.

- Kontratazioak argitaratzea:

Udalak ez du Kontratazio Atarian argitaratzen munta txikiko araubidearen arabera izapidetutako kontratuen hiruhileroko informazioa.





### Kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak

Udalak 227.351 euro ordaindu zituen kontratua epemugaratua zeukaten hiru prestaziorengatik, honako xehetasun hauekin:

Kontratuaren xedea	2022an ordaindutako gastua	Gastu metatua kontratua amaitu zenetik 2022/12/31ra arte	Kontratuaren amaiera-data (luzapenak barne)
Esku-hartze sozialeko eta gazteriako programaren gizarte- eta hezkuntza-zerbitzua	125.400	341.550	2019/12/22
Internet sarearen hornidura	61.202	126.931	2020/12/31
Sorosle-zerbitzua eta igeriketako eta ur-jardueretako programak	40.749	40.749	2022/08/31
<b>Guztira</b>	<b>227.351</b>	<b>509.230</b>	

Udalaren arabera, kontratua amaitu zenetik prestazio horiek adjudikatu ez izanaren arrazoiak honako hauek dira: gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuaren kasuan, lizitazio-prozedura eman gabe deklaratu zen; eta sorosle-zerbitzuaren eta igeriketako programen kasuan, sektoreko langileen greba egon zen. Txosten hau idazteko garaian, lizitazio-prozedura gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuaren kasuan baino ez da hasi.

Ganbera honen iritziz, lizitazioa eman gabe geratu zeneko gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik, gainerako prestazioak lizitatu egin beharko ziratekeen.

### 3.3. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak

2022an, transferentzia-gastuak 1,2 milioikoak izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko bederatzi egiten du, honela zehazturik:

	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Merkataritza-sozietateak, entitate publikoak eta bestelakoak	11.549	
Mankomunitateak	268.852	
Toki entitateak	1.881	
Enpresa pribatuak	12.000	293.790
Familiak	55.175	
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	533.810	
Beste transferentzia batzuk		29.506
<b>Guztira</b>	<b>883.267</b>	<b>323.296</b>





Honako alderdi hauek aztertu ditugu:

*Dirulaguntzen plan estrategikoa*

Udalak ez dauka Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak exijitzen duen dirulaguntzen plan estrategikoa.

*Dirulaguntzen lagin baten azterketa*

Udalak emandako informazioaren arabera, 593.792 euro eman zizkien zuzeneko ematearen prozeduraren bidez 31 onuraduni, jarraian zehazten denez:

Onuraduna	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Mutilvera kirol batasunarekiko hitzarmena	249.500	239.500
Multibasketarekiko hitzarmena	76.000	76.000
Lorezaintza eta enpleguko hitzarmena Ilundain fundazioarekin	70.000	65.660
Gizarte-zerbitzuen arretarako dirulaguntza	45.000	48.836
Erretiratuen klubarako dirulaguntza	25.000	23.000
Arangurengo Tebistarekiko hitzarmena	22.000	16.500
Aldapa elkartearekiko hitzarmena	13.000	13.000
Dirulaguntza Industrialdeko enpresariak elkarteari	18.000	12.000
Musika bandarekiko hitzarmena	12.000	12.000
Triatloiarekiko hitzarmena	10.500	10.500
Lankidetzeta eta jarduera solidarioak	10.000	10.000
Tajonar Kirol-, Jolas- eta Gastronomia-elkartearekiko hitzarmena	7.000	7.000
Aranguren Ibarreko Abesbatzarekiko hitzarmena	6.600	6.600
Larrialdi-etxebizitzetarako dirulaguntza	8.000	6.338
Irulegirekiko hitzarmena	6.200	6.200
Adacenekiko hitzarmena	6.000	6.000
San Pedro IParen jardueretarako dirulaguntza	5.000	5.000
Irulegi IParen jardueretarako dirulaguntza	5.000	5.000
Erraldoien konpartsarekiko hitzarmena	5.000	5.000
Ibaialdeko gaitariekiko hitzarmena	3.250	3.250
Ilundain fundazioarekiko hitzarmena	3.000	3.000
Elikagai Bankuarekiko hitzarmena	3.000	3.000
Dirulaguntza San Pedro ikastetxeko guraso-elkarteari jarduerak egiteko	3.000	3.000
Dirulaguntza Irulegi ikastetxeko guraso-elkarteari jarduerak egiteko	3.000	3.000
Aldapa abesbatzarekiko hitzarmena	1.800	1.800
Aranguren Klub Atletikoarekiko hitzarmena	1.100	1.100
Irulegi IPko guraso-elkartearekiko hitzarmena	1.000	1.000
Ukrainako gatazkarako larrialdietako laguntzak	12.000	508
San Pedro IPko guraso-elkartearekiko hitzarmena	1.000	-
Aranguren Txirrindularitza Elkartea	2.000	-
Tenis Klubarekiko hitzarmena	500	-
<b>Guztira</b>	<b>634.450</b>	<b>593.792</b>





Honako lagin hau aztertu dugu:

Onuraduna	Zenbatekoa, 2022
Mutilvera kirol batasuna	239.500
Lorezaintza eta enpleguko hitzarmena Ilundain Fundazioarekin	65.660
Aranguren Telebistarekiko hitzarmena	16.500
Ilundain fundazioarekiko hitzarmena	3.000
Elikagai Bankuarekiko hitzarmena	3.000
<b>Guztira</b>	<b>327.660</b>

Oro har, ikus daiteke ez dagoela zuzeneko dirulaguntzak izapidetzeko prozedura estandarizaturik. Udalak ez du onetsi dirulaguntzen ordenantza orokor bat, eta, beraz, espediente bakoitzean izapidetzea eta justifikazio-kontuaren edukiak desberdinak izan dira.

Aurreko azterketaren ondorioz, honako gai hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Azterturiko dirulaguntzak ez dira argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan.

- Hitzarmenetan ez dira argi jasota geratzen diruz laguntzeko moduko gastuak, eta ez da ezartzen egindako gastuaren justifikazio-kontuak izan behar duen edukia.

- Udalaren eta Mutilvera Kirol Batasunaren arteko lankidetzak-hitzarmenak dirulaguntza orokor bat ezartzen du ibarreko adingabe eta gazteak futbolean aritu daitezkeen, oinarrizko futboletik kategoria gorenera bitarte. Hitzarmen horretan ez dira zehazten diruz lagundu daitezkeen gastuak; alabaina, dirulaguntzak emateaz bezainbatean udal-aurrekontua betearazteko oinarriek ezartzen dutenarekin bat, gastuen aurrekontuaren betetzeak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa baino ehuneko 25 handiagoa izan beharko du gutxienez. Azken hiru urteetan, dirulaguntza hori nabarmen igo da, ehuneko 95 20-21eko denboraldiarekin alderatuta.

- Ilundain fundazioarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenean –2022ko urtarilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean indarrean dena–, besteak beste, lorategien mantentze-lanak sartzen dira, urteko 33.160 euroko zenbatekoaz. Xedea aintzat hartuta, egokiago ikusten dugu zerbitzu-kontratuko kalifikazio juridikoa ematea, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 12ko 2/2018 Foru Legearekin bat.

- Aranguren Telebistari emandako dirulaguntza izendunaren hitzarmen arau-emaitan ez datoz jasota justifikazio-kontuak dituen gastu nagusiak. Akats hori zuzendu egin da 2023ko hitzarmenean.

Egindako azterlana kontuan hartuta, hauxe gomendatzen dugu:

- *Dirulaguntzen ordenantza orokor bat onestea, eta bertan zehaztea zuzeneko dirulaguntzak emateko prozedura estandarizatu bat.*





- *Dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Diruz lagundutako jardueraren gastuak eta diru-sarrerak justifikatzeko eredu bat egitea, jarduera justifikatzeko kontua aurkeztea errazteko.*
- *Udalaren eta Mutilver Kirol Batasunaren artean sinatutako hitzarmenean sartzea diruz lagundu daitezkeen gastuak.*
- *Lorategien mantentze-lanetarako zerbitzuak lizitatzea.*

### 3.4 Next Generation funtsak

Europar Batasunak estatu kideen multzoari baliabideak bideratzea erabaki zuen, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertzeari bultzada emateko.

2021-2022 aldian, Udalak 12.525 euro jaso zituen hiru jarduketa finantzatzeko; eta horietatik 62.081 euro gastatu ditu, honako xehetasun hauekin:

	Aitortutako betebehar garbiak (2021)	Aitortutako betebehar garbiak (2022)	Guztira, 2022/12/31n
Autokontsumorako eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegi- ratzeko laguntzak	48.348		48.348
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	710	9.791	10.502
Kargagailu elektrikoa erostea (moves III)	-	3.231	3.231
Kapital-gastuak, guztira	49.059	13.022	62.081

	Aitorturiko es- kubide garbiak, 2021	Aitorturiko eskubide garbiak, 2022	Guztira, 2022/12/31n
Autokontsumoa eta energia-iturri berriztagarrien bidezko biltegi- ratzea	-	-	-
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen modernizazio digitala	-	12.525	12.525
Kargagailu elektrikoa erostea (moves III)	-	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak, guztira	-	12.525	12.525

Funtsen denboratasuna 2026ra bitartekoa da. Urte horretan proiektuek amaituta egon beharko dute. Modernizazio digitalaren proiektuari dagokionez, Udalak egin-dako gastu baino diru-sarrera gehiago aitortu ditu; aitzitik, gainerako proiektuetan, 2022ko abenduaren 31n, kasuan kasuko funtsak jasotzeke zeuden, eta ez ziren 2023ra arte jaso.

